

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO UNAMUNO IKASTETXE NAGUSIRAKO ESKARIAK
ONARTZEKO ETA PLAZAK ESLEITZEKO ARAUAK
2024-2025 IKASTURTEA**

Arrazoen azalpena:

Unamuno Ikastetxe Nagusia UPV/EHUⁿ txertatutako unibertsitateko egitura bat da, ikasleei ostatua ematen diena eta bertan bizi direnen prestakuntza kultural eta zientifikoa sustatzen duena; ikastetxe nagusiek, gainera, unibertsitate osora hedatzen du bere jarduna.

Arautegi honek prozedura bat ezartzen du eskariak tramitera onartu, plazak esleitu eta esleipena berritzeko. Era berean, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei eusten die, eta ez du inondik ere onartzen eskariak onetsi edo ezestea jaiotza, arraza, sexu, ideologia, erlijio eta sinesteetan oinarritutako diskriminazioagatik.

Lehen artikulua.- Euskal Herriko Unibertsitateko M. Unamuno Ikastetxe Nagusiak hurrengo artikuluetan zehazten denaren arabera onetsiko ditu eskari berriak edo berriztapen eskariak.

Bigarren artikulua.- Bat. Maiatzaren 1ean hasita, MUI^{NE}k eskari orriak jarriko ditu interesdun guztien esku, bai eta eskariak onartzeko arauak eta ikastetxearen barne arauak ere.

Bi. Berriztapen eskariak aurkezteko epea maiatzaren 1etik 31ra bitartekoa izango da.

Hiru. Eskari berrietarako epea maiatzaren 1etik ekainaren 30era bitartekoa izango da.

Hirugarren artikulua.- Bat. Ikastetxe Nagusiak egoitzan dauden plaza guztiak eskainiko ditu.

Bi. Aurreko ikasturtean egoitzan bizitzen egondakoek izango dute lehentasuna plazak esleitzean, zazpigarren artikuluan azaltzen diren kasuetan izan ezik.

Hirugarrena.- Hirugarren artikulua honetan esaten dena gorabehera, MUI^{NE}k plazen ehuneko bat gorde ahal izango du atzerriko ikasleentzat, atzerriko edo hirugarren zikloko ikasleentzat edo unibertsitateko ikertzaileentzat, eta haiek betetzen ez dituzten plazak zerrenda orokorrera itzuli.

Laugarrena.- Eskari berrietarako plaza kopurua lotuta egongo da Bizkaiko Campusean ematen den gradu bakoitzari dagokion ehunekoarekin, oinarri hartuta eskaria egiten den ikasturtearen aurrekoan lehen mailan matrikulatutako ikasleen kopurua. Ikus seigarren artikulua.

Laugarren artikulua.- MUI^{NE}k onartutako eskari berrien berri emango du urte bakoitzeko uztailera lehen astetik hasita, eta inoiz ez data hori baino lehenago.

Bosgarren artikulua.- Eskariak aukeratzeko prozesua, erabilitako irizpideak eta onetsitako eskariak publiko egingo dira. Prozesu osoan berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei eutsiko zaie.

Ezin izango da inolaz ere ezetsi eskari berri bat edo berriztapen eskari bat jaiotza, arraza, sexu, ideologia, erlijio edo sinesteetan oinarritutako bereizkeriagatik.

Seigarren artikulua.- Bat. Eskari berriak onetsi edo ezesteko balorazio orokorra egingo da, irizpide hauek kontuan hartuta:

- 1.- Eskatzailea matrikulatuta dagoen graduari dagokion plaza kopurua.
- 2.- Espediente akademikoa.
- 3.- Ikastetxe nagusian zenbat plaza dauden libre.

Bi. Espediente akademikoa baloratzean kontuan hartuko da unibertsitatera sartzeko probako edo pareko probako kalifikazioa. Nota orokorrari begiratuko zaio, ez proba espezifikoan lortutakoari. Espediente akademikoaren kopia aurkeztu beharko da ekainaren 30a baino lehen.

Hiru. Eskari berrietarako, proba orokorreko gutxieneko nota 7,5 edo handiagoa izan beharko da. Nota hori alda daiteke, aurkezten diren eskarien arabera.

Lau. Bizkaiko Campusean ematen diren graduei dagozkien plazetatik eskatu ez direnak edo gutxieneko notarekin eskatu ez direnak modu proportzionalan banatuko dira gainerako karreren artean.

Bosgarrena. Lehen mailatik gorako eskatzaileek, gainera, aurreko ikasturteko gai guztiak izan beharko dituzte gaindituta, eta horren agiria aurkeztu beharko dute.

Seigarrena. Eskaeran balizko gelakidea ez bada adierazten, gela bikoitzak sexu bereko pertsoneri esleitzen zaizkie. Beraz, gela horietan libre geratzen diren azken plazak esleitzean kontuan hartuko da gelako beste plaza nori esleitu zaion.

Zazpigarren artikulua.- Bat. Ikastetxe nagusian bizitzen egon direnek lehentasuna izango dute aurreko ikasturtean lortutako plaza berritzeko, hala eskatzen badute.

Bi. Dena dela, honako kasu hauetan ezetsi ahal izango dira eskari horiek:

1. Eskatzaileak zigorren bat jaso badu diziplina arauen aplikazioan, Estatutuei, egoitzako barne araei edo haien gaineko xedapenei jarraiki.
2. Eskatzaileak parte hartu badu egoitzaren bizitza edo funtzionamendu egokia larri asaldatu duten basakerietan, edo behin eta berriro urratu baditu egoitzaren elkarbizitza arauak, eta horri buruzko ohartarazpenak egin zaizkionean legezko epean eta eran.
3. Eskatzaileak errendimendu akademiko eskasa badu.
4. Egoitzako jardueretan gutxi parte hartzen badu edo batere parte hartzen ez badu.

Hiru. Eskaria ezesten zaionean, interesdunari urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen jakinaraziko zaio erabaki arrazoitu baten bidez, ezetzerako azalpen zehatzak emanaz. Epea uztailearen 20ra arte luzatuko da, gehienez, eskatzaileak noten zain baldin badaude, salbuespenez kalifikaziook jaso ez dituztenean izan ezik. Azken kasu horretan behar bezala egiaztatu beharko dute hori.

Lau. Berriztapen eskaria ezesten zaion pertsonak alegazioak aurkeztu ahal izango ditu, azaltzeko zergatik uste duen onartu beharko luketela bera ikastetxe nagusian. Egoitzako zuzendaritzak, alegazioak behin aztertuta, erabakia jakinaraziko dio interesdunari.

Zortzigarren artikulua.- Zuzendaritzak egingo ditu berriztapenak.

Bederatzigarren artikulua. Bat. Eskari berriak abuztuaren 1a baino lehenago ebatzi beharko dira.

Bi. Plazen esleipena egiteko ohiko epea amaiturik, plaza librerik geratuko balitz edo hutsunerik sortuko balitz, beste esleipen prozesu bat zabaldu ahal izango da, baina eskariak aurkezteko epe formalik ireki gabe, eta betiere irizpide berberak erabiliz.

Hamargarren artikulua.- Bat. Arrazoi justifikaturik ez balego, gelak zuzendaritzak esleitzen ditu, lehentasun hauen arabera.

- 1.- Aurreko ikasturteetan egoitzan bizi izan direnak, aurreko ikasturtean lortutako egoitzako notaren arabera.
- 2.- Eskatzaile berriak, espediente akademikoaren arabera. Ikus seigarren artikuluko 2.puntua.

Bi. Gelak banatzeko egoitzako notaren %25 batzordeetan parte hartzeari dagokio, %15 Zentroak antolatutako aktibitate akademiko edo/eta kulturaletan parte hartzea eta %10 Ikastetxe Nagusiko langileek emandako notari.

Hiru. Lehendabizi banakako gelak esleituko dira, gero gela bikoitz handiak eta azkenik bikoitz txikiak.

Bilbo, 2024ko urtarrilaren 8a

MUINeko zuzendaria
Javier Murelaga Bereicua